

Ebazpena: R8/2024

Espedientea: 60/2022

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 30a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea DIPC Fundazioak 2017ko ekitaldian egindako PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena, zenbait langileri lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoei dagokienez. Gatazka hori 60/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- DIPC egoitza soziala eta fiskala Donostian dituen irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Bere helburua da ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerak sustatzea oinarrizko fisikaren eta fisika aplikatuaren arloan, EAEko gizartearentzat eta nazioarteko garapen zientifikoarentzat interesgarriak direnak.

2.- DIPCek 2017ko eta 2018ko ekitaldietan lurralde erkidean emandako zerbitzuengatik ordaindutako lan-etekinen gaineko atxikipenen inguruan egindako egiaztapen- eta ikerketa-jarduketara partzialen ondorioz, ZAEAk erabaki

zuen, aldi horretan, GFari 36.557,66 € eta 7.758,85 € behar ez bezala ordaindu zitzaizkiola, 2017ko ekitaldiari dagokionez, eta 28.798,81 €, 2018ko ekitaldiari dagokionez, eta DIPC ek ez zituela aurkeztu zegozkion autolikidazioak.

Etekin horiek jaso zituzten langileek lurralde erkidean aurkeztu zituzten ekitaldi horietako PFEZaren aitorpenak; gainera, hor zituzten beren egoitza fiskalak.

3.- ZAEAk atxikipen horiek itzultzeko eskatu zion GFari 2022ko otsailaren 11n.

4.- 2022ko martxoaren 11n, GFAk ezetsi egin zuen 2017ko ekitaldiari zegozkion atxikipenak itzultzeko eskaera, preskripzioagatik.

5.- 2022ko maiatzaren 10ean, ZAEAk inhibitzeko errekerimendua egin zion GFari, eta 2022ko ekainaren 2an GFAk baztertu egin zuen errekerimendua.

6.- 2022ko apirilaren 4an, ZAEAk Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean planteatu zuen gatazka, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela-eta, bete da izapidea, GFAk alegazioak egin eta dagozkion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkez eta proposa ditzan; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Preskripzioa.

Arbitraje Batzorde honek behin baino gehiagotan eman du bere iritzia gatazka honen inguruan, besteak beste, Arbitraje Batzordearen honako ebazpen hauetan: uztailaren 28ko 39/2022, 40/2022, 41/2022, 42/2022, 43/2022 ebazpenetan, uztailaren 6ko 76/2022 Ebazpenean, abenduaren 15eko 174/2022 eta 176/2022 ebazpenetan, eta berriagoetan, hau da, ekainaren 23ko 75/2023, 74/2023, 73/2023, 72/2023, 70/2023 eta 68/2023 ebazpenetan. Ebazpen horietan eta haietan aipatzen den jurisprudentzian ondorioztatzen denez, jurisprudentzia baketsua eta errepikatua da, administrazioen arteko kreditu

publikoko zuzenbidea aurrekontuei buruzko eskubide publikoa da, administrazioak zergadunaren aurrean duen tributu-eskubideaz bestelakoa, eta haren lau urteko preskripzio-epea atxikipena GFAn bidegabe sartzen den unean hasten da. Gainera, ondorio horrek berriz ere Auzitegi Gorenaren bermea jaso du, eta berretsi egin du urriaren 11ko 1240/2023 Epaian (ECLI:ES:TS:2023:4217) eta urriaren 27ko 1344/2023 Epaian (ECLI:ES:TS:2023:4430).

Horrenbestez, 2017ko lehen hiru hiruhilekoetan GFAn behar ez bezala ordaindutako atxikipenei zegozkien zenbatekoak erreklamatzeko epea dagoeneko preskribatuta zegoen 2022ko otsailaren 11n ZAEAk atxikipenak itzultzeko eskaera egin zuenean.

Laugarren hiruhilekoari zegokion epea preskribatu gabe zegoen ordea. COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14koa 463/2020 Errege Dekretuak honela dio 4. xedapen gehigarrian: «Edozein ekintza eta eskubide preskribatzeko eta iraungitzeko epeak eten egingo dira alarma-egoeraren eta, hala badagokio, hartutako luzapenen indarraldian zehar». Xedapen hori 2020ko martxoaren 14an jarri zen indarrean, eta urte bereko ekainaren 3an amaitu zen, alarma-egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera etendako eskubide eta ekintzen preskripzio- eta iraungipen-eppei buruzkoa (alarma-egoera martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretu bidez aitortu zen, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena):

«2020ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin, eskubideak eta akzioak preskribatzeko eta iraungitzeko epeen etenaldia amaituko da».

Beraz, kontuan hartuta 2017ko 4. hiruilekoko diru-sarrera 2018ko urtarrilaren 25ean egin zela GFAn, lau urteko epealdia 2022ko urtarrilaren 25ean amaitu zen, eta horri alarma-egoerak eragindako 82 egun naturaleko etenaldia gehitu beharko litzaioke; beraz, epea argi eta garbi preskribatuta zegoen 2022ko otsailaren 11n.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Adieraztea dagoeneko preskribatu dela ZAEAK GFari erreklamazioa egiteko eskubidea, DIPCek langile batzuei ordaindutako lan-etekinen gainean egindako atxikipenak, 2017ko lehen hiru hiruilekoetan GFAn behar ez bezala sartu zirenak, itzultzeari dagokienez.

2.- Adieraztea ZAEAK GFari erreklamazioa egiteko eskubidea duela, DIPCek langile batzuei ordaindutako lan-etekinen gainean egindako atxikipenak, 2017ko laugarren hiruilekoan GFAn behar ez bezala sartu zirenak, itzultzeari dagokienez.

3.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta DIPC Fundazioari.